



Andoaino
Udala

**Andoaingo udalerrian euskara
sustatzeko jardueretarako
dirulaguntzen emakida araupetzen
duen berariazko ordenantza**

**Ordenanza específica reguladora de
las ayudas económicas para
actividades de fomento del euskera
en Andoain**

Zioen azalpena

Udalaz gaindiko legediari begira, ordenantza honek garatzen ditu:

- 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak,
- 6/2003 Legeak, abenduaren 22koak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarenak.
- Eusko Jaurilaritzaren 123/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzkoa, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei Legean aitortzen zaizkien hizkuntza eskubideak egiazki gauzatzeko eta bermatzeko urratsak zehazten dituena.
- Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21ean, 887/2006 Errege Dekretuaz, onartutako garapen araudia.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeetarako buruzkoa. 7. artikuluan, besteak beste, udalei izandaten zaie beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, izan jarduerak zuzenean antolatuz edo beste batzuek antolatutakoak finantzatzuz.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. 10. artikuluan zehazten da udalek duten *ad extra* eskumena, tartean gizarte-jarduerak finantzatzeko laguntzekoa.

Bestalde, Andoaingo Udalak onartu zuen Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen 1/88 Udal Ordenantza. Hura garatzeko mota ezberdinetako, eta hainbat prozedurari jarraiki eman dira euskara sustatzeko dirulaguntzak: Andoaingo Udalak onartutako ordenantzen bidezkoak (2007.03.29ko Euskara Ikasteko dirulaguntzen ordenantza, 2010.01.28ko enpresa zein merkataritza jardundegiek bere zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeko dirulaguntzen ordenantza), zein urtez urte udal organoek onartutakoak, baita unean-unean Udalak elkarteekin sinatutako hitzarmenen arabera ere garatzeko hainbat dirulaguntza onartu izan ditu geroztik.

2015ean Udalak beharrezkoa ikusi zuen dirulaguntza horiek guztiak ordenatzea eta bateratzea, alde batetik,

Exposición de motivos

La presente ordenanza desarrolla la siguiente legislación normativa de carácter supramunicipal:

- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera,
- Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias, aprobada por el Parlamento Vasco el 22 de diciembre de 2003.
- Decreto 123/2008, de 1 de julio, sobre los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias aprobado por el Gobierno Vasco. En este Decreto, se recogen los pasos necesarios para hacer efectivos los derechos lingüísticos reconocidos a los consumidores y usuarios por la Ley anteriormente citada.
- Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre, y su Reglamento de desarrollo, aprobado mediante Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. El artículo 7 atribuye a los ayuntamientos, entre otras competencias, la promoción del conocimiento y dinamización del uso del euskera en su ámbito territorial, ya sea mediante la organización directa de actividades o mediante la financiación de las organizadas por terceros.
- Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi. El artículo 10 determina la competencia *ad extra* de los ayuntamientos, incluida la de contribuir a la financiación de las actividades sociales.

Por su parte, el Ayuntamiento de Andoain aprobó la Ordenanza Municipal 1/88 por la que se regulan la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y en el Municipio. Para su desarrollo se han venido concediendo distintos tipos de subvenciones a través de diferentes tipos de procedimientos: ordenanzas aprobadas por el Ayuntamiento de Andoain (Ordenanza de subvenciones para el Aprendizaje del Euskera de 29.03.2007, Ordenanza de subvenciones para el fomento del uso del euskera en sus servicios por parte de empresas y establecimientos comerciales de 28.01.2010), u otras aprobadas anualmente por los órganos de gobierno municipales, así como diversas subvenciones que el Ayuntamiento ha venido aprobando puntualmente para el desarrollo de los convenios suscritos con las asociaciones y en función de aquellos..

En 2015, el Ayuntamiento consideró, por un lado, necesario ordenar y unificar todas estas subvenciones



Andoaingo Udala

eta bestetik, andoaindarrak euskara ikasteko doakotasunaren bidean jartzea. 2018an, HABEk ezarritako Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumean (HEOC) jasotzen ziren euskara ikasteko mailetara egokitu zuen Udalak ordenantza. Azkeneko bi ordenantza horietan honako lerroak jasotzen ziren:

- Euskara ikasteko eta hobetzeko.
- Aisialdiko begirale eta zuzendari ikasketak egiteko.
- UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren uda ikastaroetarako.
- Idazkun edo errotuluak euskaraz jartzeko.
- Irudi korporatiboa euskaratzeko.
- Webguneak eta programa informatikoak euskaraz jartzeko.
- Zuzeneko emakidak.

Oraingo honetan ere ordenantza zuzentzeko eta osatzeko beharra ikusi da eta hauek dira proposatutako aldaketa nagusiak:

- Euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzetan:
 - Lehentasuna emango zaio asistentziari, albo batera utzita maila gairatzen den ala ez.
 - Herritarrari erraztuko zaio eskaera egiteko prozedura, aurrez izen-emate agiria ez du aurkeztu beharko eta, bestalde, ikastaroan izandako asistentzia eta aprobetxamendu akademikoa Udalak izapidetuko du zuzenean ikastegiarekin.
 - Arazo ekonomikoak dituzten herritarrei aukera emango zaie dirulaguntzaren zati bat aurretik jasotzeko.
- Herriko kultur, aisialdi edota kirol elkarteetako begirale eta entrenatzaileentzat jokalarien hizkuntza-aktibazioan eragiteko estrategiak lantzen duten ikastaroak egiteko dirulaguntzak sartu dira.
- UEU, EHU-UPV eta HIK HASI erankundeek antolatutakoez gain, beste erakunde ofizialek antolaturiko unibertsitate mailako udako ikastaroak ere kontuan hartzea.
- Merkataritza arloko dirulaguntzak ordenatzea.
- Zuzeneko emakidak alboratzea, hemendik aurrera dirulaguntza izendunen bidez bideratzeko.
- Urtero, deialdien bidez, dirulaguntza ordenantza

y, por otro, facilitar a los vecinos de Andoaín la línea de la gratuidad del aprendizaje del euskera. Por último, en 2018, el Ayuntamiento adaptó la ordenanza a los niveles de aprendizaje de euskera recogidos en el Currículum Básico para la Euskaldunización de Personas Adultas (HEOC) establecido por HABE.

En estas dos últimas ordenanzas quedaban recogidas las siguientes líneas de actuación:

- Para el aprendizaje y mejora del euskera.
- Para la realización de estudios de monitora/monitor y directora/director de tiempo libre.
- Para los cursos de verano de la UEU, EHU-UPV e HIK HASI.
- Para la colocación de letreros o rótulos en euskera.
- Para la implementación de la Imagen corporativa en euskera.
- Páginas web y programas informáticos en euskera.
- Concesiones directas.

También en esta ocasión se observa la necesidad de corregir y completar la Ordenanza, por lo que se establecen las siguientes modificaciones principales:

- En cuanto a las subvenciones para el aprendizaje y mejora del euskera:
 - Se concederá prioridad a la asistencia, independientemente de que se supere o no el nivel.
 - Se facilitará al ciudadano el procedimiento de solicitud, se evitará la presentación del documento de preinscripción y el Ayuntamiento tramitará directamente con el centro de enseñanza la asistencia y aprovechamiento académico del curso.
 - ⇨ Se dará a la ciudadanía con problemas económicos la posibilidad de anticipar la percepción de parte de la subvención-
- Se incluyen subvenciones para la realización de cursos dirigidos a monitores/as y entrenadores/as de asociaciones culturales, recreativas y/o deportivas del municipio, que aborden estrategias para incidir en la activación lingüística de las jugadoras y jugadores o personas participantes.
- Serán atendidas, además de los cursos organizados por la UEU, EHU-UPV e HIK HASI, los organizados en verano a nivel universitario por otros organismos oficiales.
- Se Ordenan las subvenciones destinadas al área del comercio.
- Se Excluyen las concesiones directas para su tramitación a partir de ahora mediante subvenciones nominativas.
- Se desarrollará anualmente, mediante



Andoaingo Udala

hau garatzea.

convocatorias, la presente Ordenanza de subvenciones.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Berariazko ordenantza honen xedea da, Andoainen euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea.

Dirulaguntzak ondorengo atalen baterako eskatu ahal izango dira:

- Euskara ikasteko eta hobetzeko.
- Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroak eta hezitzaileen berariazko prestakuntza egiteko.
- Kanpo eta barruko hizkuntza paisaia euskaraz jartzeko.
- Webguneak eta programa informatikoak euskaraz jartzeko.
- Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak
- Andoaingo elkarteek bertso saioak antolatzeke.
- Gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu duten herritarrentzat.

2. artikulua. Onuradunak eta eskabideak

Dirulaguntzen onuradunek, beti ere, Andoaingo Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2014ko martxoaren 27an onartutako Dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantzaren 12. eta 21. artikuluetan jasotakoak bete beharko dituzte, eta, horietaz gain, Foru Ogasun, Gizarte Segurantzaren eta Andoaingo udalaren zergak eta ordainkizunak egunean izango ditu.

Lege horren 39/2015 Legearen 28. Artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduko 6.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Andoaingo Udalak zuzenean kontsultatuko du, interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan, eskatzailea Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurrean bere betebeharren ordainketan egunean dagoela. Halaber, hala balegokio, eta interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurilaritzan

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto

El objeto de esta ordenanza específica es regular las condiciones para la concesión de subvenciones destinadas a las actividades de fomento del euskera en Andoain.

Se podrán solicitar las subvenciones para cualquiera de los siguientes apartados:

- Aprendizaje y mejora del euskera.
- Cursos para la obtención del título de monitora/monitor y directora/director de tiempo libre y formación específica de educadores.
- Para la implementación del paisaje lingüístico externo e interno en euskera.
- Para páginas web y programas informáticos en euskera.
- Subvenciones destinadas a entidades que promuevan el euskera en ámbitos supramunicipales
- Organización de eventos de versolarismo por parte de asociaciones de Andoain.
- Para la realización del examen teórico de obtención del permiso de conducir en euskera por parte de los vecinos del Municipio.

Artículo 2. Personas beneficiarias y solicitudes.

Las/os beneficiarias/os de estas ayudas deberán cumplir tanto lo recogido en los artículos 12 y 21 de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones aprobada por el Ayuntamiento de Andoain en el pleno celebrado el 27 de marzo de 2014, como acreditar que se hallan al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones y tributos, frente a la Hacienda Foral, a la Seguridad social y al Ayuntamiento de Andoain.

De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015 y el art. 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el ayuntamiento de Andoain consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, en la Hacienda Foral y en la Tesorería de la Seguridad Social, si la persona solicitante está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones ante la Hacienda Foral y la Seguridad Social. Asimismo, en su caso, si la persona interesada no se opusiera a ello, consultará en el Gobierno Vasco los datos



Andoaino Udala

familia ugari titulua eta Gipuzkoako Foru Ogasunean aurreko ekitaldiko errenta-aitorpena.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorri, eskatzaileak bere datuak kotsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Ikastaro edo jarduera beragatik beste erakunde pribatu edo publikoren batek dirulaguntzarik eman badio edo oraindik erantzunik ez ezagutu arren beste dirulaguntzarik eskatuta baldin badauka, eskabidearen inprimakian bertan azaldu beharko du zein erakunderi eskatu dion eta, dagoeneko erantzuna jaso badu, zein den jasoko duen diru kopurua.

Betekizun horietaz gain, dirulaguntza mota bakoitzarentzat zehazten diren baldintzak egiaztatu beharko dituzte.

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira honako bideak erabiliz:

- Andoaino udaletxeko ATARIAn, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan.
- Andoaino Udaleko zerbitzu telematikoen bidez.
- Edozein administrazio publikotako erregistroan (udalak, aldundiak, autonomia-erkidegoak, estatuko administrazioa edo mendeko erakundeak), beti ere EIS sisteman badago.
- Postetxean, EEBBE zerbitzuan.
- Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutakotan.

3. artikulua. Dirulaguntzen prozedura eta kudeaketa

Aurrekontua kontsignatzea, finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldebereketasuna beste dirulaguntza batzuekin, organo eskudunak, itzulketa eta zehapen araubidea, indarrean den 2014ko martxoaren 27an onartutako Dirulaguntzak ematea arautzeko Udal Ordenantzan daude jasota, eta bertan jasotakoa bete beharko da, derrigorrez, dirulaguntza hauek jaso ahal izateko.

4. artikulua.- Instrukzioa eta proposamena

Dirulaguntza atal bakoitzerako Udalak urtero

correspondientes al título de familia numerosa y en la Hacienda Foral de Gipuzkoa la declaración de la renta del ejercicio anterior.

De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos, debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el ayuntamiento podrá obligarle a presentar los correspondientes documentos.

Si algún otro organismo privado o público le ha concedido otra ayuda por el mismo curso o actividad, o si ha solicitado dicha ayuda y está a la espera de respuesta, en el mismo impreso de solicitud deberá señalar a qué organismo ha dirigido esa solicitud, y en el caso de que ya tenga respuesta, cuál es la cantidad que va a recibir en concepto de ayuda.

Asimismo, deberán acreditar las condiciones que se detallan en cada tipo de ayuda que se explican a continuación.

Las solicitudes podrán presentarse a través de los siguientes medios:

- Presencialmente, en el Servicio de Atención Ciudadana ATARIA del Ayuntamiento de Andoain.
- A través de los servicios telemáticos del Ayuntamiento de Andoain
- En el registro de cualquier Administración Pública (Ayuntamientos, Diputaciones, Comunidades Autónomas, Administración del Estado o Entidades dependientes) siempre que se encuentre en el sistema SIR.
- Correos, en la oficina ORVE.
- En los términos previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 3. Procedimiento y gestión de las ayudas

La consignación presupuestaria, el límite de la financiación, la compatibilidad y concurrencia con otras subvenciones, los órganos competentes, el reintegro de las subvenciones, así como el régimen sancionador, se recogen en la Ordenanza Municipal Reguladora de la Concesión de Subvenciones de 27 de marzo de 2014, y todo lo que en ella se reseña es de obligado cumplimiento para poder recibir alguna de estas ayudas.

Artículo 4. Instrucción y propuesta

Destinada a cada uno de los apartados de



Andoaingo Udala

argitaratuko du deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz udaleko webgunean, eta bertan jasoko dira urte horretarako diru kopuruak, eskaerak aurkezteko datak eta ordenantza honetan jasotakoari osagarri izango diren baldintzak.

Eskaerak aurkeztuta, Euskararen Normalizaziorako zinegotzi-ahaldunaren edota dirulaguntza hauen inguruko irizpena emateko ahalmena duen udal organoaren esku jarriko dira, aurretiaz Euskara Zerbitzuaren arduradunaren txostena erantsiko zaielarik.

Euskara Zerbitzuaren arduradunak eskaeretan azaldutakoaren eta egiaztatutakoaren arabera, eskatzaileek dirulaguntza jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituzten adieraziko du, eta egindako eskaerei zein dirulaguntza kopurua dagokien. Hori guztia, honako Ordenantzak eta urtero argitaratzen diren deialdiei xedatuari jarraiki.

Behin espedientea aurreko paragrafoetan esanda bezala osatuta, atal bakoitzean zehazten den moduan ebatziko da.

II, III, V, VI, VII, VIII eta IX. ataletan urteroko deialdian ezarritako diru kopuru osoa eskatzaileei dagokien dirulaguntza ordaintzeko nahikoa izango ez balitz, gehieneko ehunekoak jaitsi egingo lirateke baldintzak betetzen dituzten eskabide guztietara iritsi arte.

5. artikulua. Jarduerak jakinaraztea eta helegiteak aurkeztea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1 b) artikuluan xedatzen duenez, oinarri hauetan jasotako prozedurazko egintzak Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren webgunean (<http://www.andoaindarraeuskaraz.eus>) argitaratzea nahikoa izango da, eta ez dago eskatzaileei banan-banan jakinarazi beharrik. Aipatu argitalpenean egintza bakoitzari dagozkion epeak zehaztuko dira, adieraziz epearen zenbaketa hasiera data.

Dirulaguntzen behin-behineko ebazpen proposamena Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuaren webgune bidez egingo da, eta egoki irizitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea

subvenciones, el Ayuntamiento publicará anualmente la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web municipal, con expresión de las cuantías económicas para dicho ejercicio, las fechas de presentación de solicitudes y las condiciones complementarias a las recogidas en esta Ordenanza.

Presentada la instancia, la misma se someterá a la consideración de la Concejal-Delegada o del Concejal-Delegado para la Normalización del Euskera o la del órgano municipal competente para dictaminar las mismas, previo informe de la persona responsable del Servicio de Euskera.

En el informe emitido por la persona responsable del Servicio de Euskera, se hará constar si la persona solicitante, con arreglo a lo expuesto y acreditado en su solicitud, cumple las condiciones requeridas para la concesión, y el importe que correspondería a dicha solicitud. Todo ello, con arreglo a lo dispuesto por la presente Ordenanza, y lo establecido en las convocatorias anuales.

Una vez completado el expediente de acuerdo a lo reseñado en párrafos anteriores, se resolverá en modo a lo que se recoge en cada apartado de ayudas.

En el caso de que la cuantía total establecida en la convocatoria anual en los apartados II, III, V, VI, VII, VIII y IX no alcanzase para satisfacer la subvención correspondiente a los solicitantes, los porcentajes máximos se reducirán hasta alcanzar el número total de solicitudes que cumplan los requisitos.

Artículo 5. Notificación de actuaciones y presentación de recursos.

El artículo 45.1 b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, establece que la publicación de los actos procedimentales contenidos en estas bases en la página web del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Andoaín (<http://www.andoaindarraeuskaraz.eus>) será suficiente sin necesidad de notificación individualizada a los solicitantes. En dicha publicación se especificarán los plazos correspondientes a cada acto, con indicación de la fecha de inicio del cómputo del plazo.

La propuesta de resolución provisional de las subvenciones se realizará a través de la página web del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Andoaín, concediéndose un plazo de diez días para que se



Andoaino Udala

emango zaie. Jakinarazpenaren eta alegazioetarako datak urtero argitaratuko den deialdian jasoko dira.

Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egin eta argitaratuko da.

formulen las alegaciones que se estimen oportunas. Las fechas de notificación y de alegaciones se recogerán en una convocatoria anual.

En su caso, una vez examinadas las alegaciones presentadas, se elaborará y publicará la propuesta definitiva de resolución.

II. EUSKARA IKASTEKO ETA HOBETZEKO

6. artikulua. Xedea

Andoaino Udalak, Andoainen euskararen erabilera normalizatzeko, helduen alfabetatze eta euskalduntzea sustatzea du helburu eta egitekoetako bat. Horregatik, euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak emateko arauak finkatu ditu.

7. artikulua. Onuradunak eta bete beharreko baldintzak

Dirulaguntza hauen onuradun izango dira 2. artikuluko eta ondorengo baldintza hauek betetzen dituztenak:

- 16 urtetik gorakoa izatea, dirulaguntzaren xede den ikastaroa amaitzen den datarako.
- Andoainen erroldatuta egotea dirulaguntza eskatzen denean.
- HABEk homologatutako ikastaroa egitea HABEk homologatutako euskaltegietan, barnetegietan eta autoikaskuntza ikastegietan.
- Gutxienez % 75 bertaratzea egiaztatzea. Asistentzia zenbatzeko orduan ez dira hutsegitez hartuko ondoko kasuak:
 - Ikasleren batek, lanean hasi, eta ordutegia dela-eta, ez badauka euskaltegira etortzerik (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko du).
 - Ikaslearen edo 1. mailako ahaide baten gaixotasuna (mediku ziurtagiria egiaztatuta).
 - Haurdunaldia, (mediku-txosten bidez egiaztatzen badu atseden osoa behar duela).
 - Ikaslea gurasotasun baimen egoeran egotea.
- Orokorrean, HABEk ikasturte horretarako eskaintzen dituen dirulaguntzak eskuratzeko aukerarik ez izatea. Salbuespenak balira urtero argitaratzen den dirulaguntza deialdian zehaztuko dira.
- Eskabidea ezarritako epean aurkeztea.

II. APRENDIZAJE Y MEJORA DEL EUSKERA

Artículo 6. Objeto

El Ayuntamiento de Andoain tiene entre sus objetivos y funciones el impulso de la alfabetización y euskaldunización de adultos para la normalización del uso del euskera en Andoain. Por ello, ha fijado las normas para la concesión de subvenciones para el aprendizaje y perfeccionamiento del euskera.

Artículo 7. Beneficiarios y requisitos

Tendrán la consideración de beneficiarias de estas subvenciones las personas en las que concurren, además de los requisitos recogidos en el artículo 2, estos otros:

- Ser mayor de 16 años, a la fecha de finalización del curso para el que se solicita la subvención.
- Estar empadronada en Andoain a la fecha de solicitud de la ayuda.
- Realización de un curso homologado por HABE en euskaltegis, barnetegis y centros de autoaprendizaje homologados por HABE.
- Acreditar una asistencia mínima del 75%. No se considerarán faltas de asistencia a efectos del cómputo de asistencia:
 - En el caso de que algún alumno o alumna no pueda incorporarse al euskaltegi por incorporarse al mundo laboral y tener problemas con el horario (deberá aportar certificado de empresa).
 - Enfermedad del alumno/a o familiar de 1º grado (acreditado con certificado médico).
 - Embarazo (cuando se acredite mediante informe médico la necesidad de reposo completo).
 - Que el alumno o alumna se encuentre en situación de permiso de maternidad o paternidad.
- Con carácter general, no tener acceso a las subvenciones que ofrece HABE para ese curso. Las excepciones, si las hubiera, se detallarán en la convocatoria anual de ayudas.
- Presentar la solicitud en el plazo establecido al efecto.



Andoaino Udala

Ez dute banakako dirulaguntzarik jasotzeko aukerarik izango jadanik Udalak diruz laguntzen dituen berariazko ikastaroetan parte hartzen dutenek. Udalak berariaz lagunduriko ikastaro horietan egindako diru-ekarpena, banakako eskaera eginez gero jasoko luketena baino txikiagoa denean izan ezik. Azken horietan, banakako laguntza kopuruak berdintzeraino eman ahal izango dio zuzenean Udalak ikasleari.

Ez dira ikasketa-kostutzat iritziko euskaltegirako joan-etorrien gastuak, liburu eta material gastuak, eta ikastaroan edo euskaltegian ikasleak jardura akademikoaren osagarri moduan egindako beste edozein jarduerengatikoa gastua. Barnetegietako ostatu gastuei dagokienez, Udalak ezarriko du ikasturte bakoitzerako lagunduko duen ehunekoak.

8. artikulua. Eskabideak

Dirulaguntza jasotzeko, eskatzaileak ikasturte bakoitzerako argitaratzen den deialdian zehazturiko datetan aurkeztu beharko du dirulaguntza eskaera eskatzaileak, Ordenantza honen 2. artikuluan zehazten diren medioetako baten bidez.

Eskabideak izapidetuko dira ikastaroaren hasiera eta bukaeraren egunaren arabera. Horrela, hiru multzo izango dira:

- 1.- *Multzoa*: urriaren 1etik aurrera hasi eta martxoaren 1etik ekainaren 30 bitartean bukatzen direnak.
- 2.- *Multzoa*: urriaren 1etik aurrera hasi eta otsailaren 29 baino lehen bukatzen direnak.
- 3.- *Multzoa*: ekainaren 1etik aurrera hasi eta urriaren 1 baino lehen bukatzen direnak.

Multzo horietaz gain, urteko deialdian ezarri ahalko dira beste batzuk, beharren arabera.

Era berean, Udalak lan-ildo estrategikotzat jotzen dituen kolektiboentzako zuzeneko dirulaguntzak bideratu ahal izango dira, hasiera batetik ikastaroak doakoak izan daitezten herritar horientzat.

9. artikulua.- Dirulaguntzaren ezaugarriak.

Dirulaguntzaren gehienezko ehunekoak eta kopuruak urtero argitaratzen den deialdian jasoko dira.

Halere, **matrikularen kostuaren %100 jasoko dute**, betiere urteko deialdian ezarritako gehienezko kopuruaren mugapean, 7. artikuluan zehaztutako

No podrán acogerse a estas ayudas individuales aquellas personas que las soliciten para cursos previamente y/o directamente subvencionados por el Ayuntamiento, a excepción de los casos en los que la solicitud de ayuda realizada de forma personal superara a la subvención directa del curso. En esos casos el Ayuntamiento podrá conceder la ayuda económica personal al/a la alumno-a en parte proporcional, hasta igualar la individual.

En ningún caso serán contemplados en la cantidad subvencionable los gastos relativos a desplazamientos por asistencia al euskaltegi, gastos de libros y material y los resultantes de cualquier otra actividad complementaria a la académica desarrollada por el alumnado en el centro o a lo largo del curso. En el caso de los gastos de alojamiento en los internados, el Ayuntamiento decidirá el porcentaje de ayuda para cada curso.

Artículo 8. Solicitudes

Para obtener la subvención, la persona solicitante deberá presentar la solicitud dentro del plazo fijado en la convocatoria publicada para ese curso, a través de alguno de los medios señalados en el artículo 2 de la presente Ordenanza.

Las solicitudes se tramitarán por fecha de inicio y finalización del curso. Así, existirán tres bloques:

- 1^{er} Grupo: los que se inician a partir del 1 de octubre y finalizan entre el 1 de marzo y el 30 de junio.
- 2^o Grupo: los que se inician a partir del 1 de octubre y finalizan antes del 29 de febrero.
- 3^{er} Grupo: los que se inician a partir del 1 de junio y finalizan antes del 1 de octubre.

Además de estos grupos, en la convocatoria anual podrán fijarse otros en función de las necesidades.

Asimismo, el Ayuntamiento podrá destinar ayudas directas a aquellos colectivos que se estimen estratégicos en el plan de promoción del euskera, de manera que, desde un principio, los cursos sean gratuitos para esos colectivos.

Artículo 9.- Características de la subvención.

En la convocatoria que se publica cada año se establecerán el porcentaje y cantidades máximas de esta ayuda.

No obstante, **percibirán el 100% del coste de la matrícula**, siempre con el límite de la cantidad máxima establecida en la convocatoria anual,



Andoingo Udala

baldintzak betetzeaz eta egiaztatzeaz gain, ondorengo baldintza hauetakoren bat ere betetzen dutenek:

- a).- Familia unitateko kide bakoitzarengatik diru-sarrera gordinen batez bestekoa LGS x 12 euro baino gehiagokoa ez izatea. Familia unitatetzat jotzen da ohiko helbidean elkarrekin bizi diren pertsona guztiak; horretarako, kontuan hartuko dira biztanleen udal erroldako datuak. Gurasoekin bizi diren 30 urtetik gorako dirulaguntza eskatzaileak, ordea, kide bakarreko bizikidetzako unitatetzat hartuko ditu Udalak. Era berean, gurasoekin bizi diren eskatzailearen anaia-arrebak 30 urtetik gorakoak direnean, ez dira bizikidetzako unitateko kide konputagarritzat hartuko.
- b).- Familia ugariaren titulua edukitzea.
- c).- Euskararen Sustapenerako Ekintza Planaren garapenean urte bakoitzerako onartzen den Kudeaketa Planean jasota dauden lan-ildo estrategikoen kolektiboak (merkatariak, gurasoak, entrenatzaileak, atzerritarrak, aisialdi begiraleak...).
- d).- Guraso bakarreko familiakide izatea.

Udalak ikasturte bakoitzerako argitaratzen den deialdian honakoak erabakiko ditu, gutxienez:

- Dirulaguntza arruntaren ehunekoa.
- Ikasleak ikasturte batean jaso dezakeen gehienezko kopurua.
- Autoikaskuntza ikastaroen kasuan, Udalak lagunduko duen gehienezko kopurua ikasleko eta ikasturteko
- Barnetegietako ostatu gastuen ehunekoa eta gehienezko kopurua ikasleko eta ikasturteko.
- C1 edo C2 ikastarorik egin duen ikasleak ikasturteko jaso dezakeen gehienezko kopurua.

10. artikulua.- Dirulaguntzaren ordainketa

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta izapidetuko dira dirulaguntzak.

Ondorengo baldintzak betez gero, matrikularen % 100 ordaintzeko erraztasunak eskatu ahal izango ditu ikasleak:

- Familia unitateko kide bakoitzarengatik diru-sarrera gordinen batez bestekoa LGS x 12 euro baino gehiagokoa ez izatea. Familia unitatetzat jotzen da

quienes, además de cumplir y acreditar los requisitos establecidos en el artículo 7, cumplan alguno de los siguientes requisitos:

- a).- Que el promedio de ingresos brutos por cada miembro de la unidad familiar no supere el SMI x 12 meses Se entiende por unidad familiar la totalidad de las personas que conviven en el domicilio habitual, para lo cual se tendrán en cuenta los datos del padrón municipal de habitantes. Los solicitantes de ayudas económicas mayores de 30 años que convivan con sus progenitores serán considerados por el Ayuntamiento como unidad convivencial unipersonal. Tampoco se considerarán miembros computables de la unidad convivencial los hermanos o hermanas mayores de 30 años de la persona solicitante que convivan con sus progenitores.
- b).- Estar en posesión del título de familia numerosa.
- c).- Colectivos de líneas de trabajo (comerciantes, padres y madres, entrenadores y entrenadoras, extranjeros y extranjeras, monitores y monitoras de tiempo libre) que se recogen en el Plan de Gestión que se aprueba para cada año en desarrollo del Plan de Acción para la Promoción del Euskera.
- d).- Ser miembro de familia monoparental.

El Ayuntamiento acordará en la convocatoria que se publique para cada curso escolar:

- El porcentaje de la subvención ordinaria.
- La cantidad máxima que la/el alumno/a puede percibir en un curso.
- En el caso de los cursos de autoaprendizaje, número máximo de ayudas por alumno/a e importe con el que subvencionará el Ayuntamiento
- Porcentaje y cantidad máxima de ayuda para los gastos de alojamiento en barnetegis por alumna/o y curso.
- Cantidad máxima a recibir por curso la/el alumna/alumno que ha realizado el curso C1 o C2.

Artículo 10.- Pago de la subvención

Las subvenciones se tramitarán una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes.

El alumno o la alumna podrá solicitar facilidades para el abono del 100% de la matrícula cuando cumpla los siguientes requisitos:

- Que el promedio de ingresos brutos por cada miembro de la unidad familiar no supere el SMI x 12 euros. Se entiende por unidad familiar la totalidad de



Andoingo Udala

ohiko helbidean elkarrekin bizi diren pertsona guztiak; horretarako, kontuan hartuko dira biztanleen udal erroldako datuak. Gurasoekin bizi diren 30 urtetik gorako dirulaguntza eskatzaileak, ordea, kide bakarreko bizikidetzako unitatetzat hartuko ditu Udalak. Era berean, gurasoekin bizi diren eskatzailearen anaia-arrebak 30 urtetik gorakoak direnean, ez dira bizikidetzako unitateko kide konputagarritzat hartuko.

las personas que conviven en el domicilio habitual, para lo cual se tendrán en cuenta los datos del padrón municipal de habitantes. Los solicitantes de ayudas económicas mayores de 30 años que convivan con sus progenitores serán considerados por el Ayuntamiento como unidad convivencial unipersonal. Tampoco se considerarán miembros computables de la unidad convivencial los hermanos o hermanas mayores de 30 años de la persona solicitante que convivan con sus progenitores.

Matrikula ordaintzeko erraztasunak eskatzen dituzten ikasleen kasuan ikastaroaren ordainketa honela egin ahalko da:

En el caso de alumnos que soliciten facilidades para el pago de la matrícula, el pago del curso podrá realizarse de la siguiente manera:

- 1.- Matrikularen % 100 aurreratuko zaio dirulaguntza eskatzaileari, eta horrek baimena emango dio Udalarari endosu bidez dirulaguntza hori zuzenean euskaltegiari ordain diezaion. Ordainketa egiteko era hau aukeratu da dirulaguntza eskatu den helburu horretarako erabiliko dela ziurtatzeko.
- 2.- HABEK euskaltegian matrikulatzeko ezarritako baldintzek eragotziko balute aipatutako ordainketa euskaltegiari zuzenean egitea, Udalak ordaindu ahal izango dio aurrerapena herritarrari, eta neurriak hartuko ditu herritarrak euskaltegiari ordainduko diola bermatzeko.

1. Se anticipará al solicitante de la ayuda el 100% de la matrícula y éste autorizará al Ayuntamiento a abonar directamente al euskaltegi dicha subvención mediante endoso. Se ha optado por la presnete forma de pago, a fin de asegurar el destino de la subvención a la finalidad para la que se ha solicitado.
2. Si las condiciones establecidas por HABE para la matriculación en el euskaltegi impidieran la realización directa del citado pago, el Ayuntamiento podrá abonar el anticipo a la ciudadana o ciudadano, tomando las medidas necesarias para asegurar el pago al euskaltegi.

Gutxieneko % 75eko asistentzia bete ez dutenei Udalak aurreratutako matrikularen % 100 itzultzeko eskatuko die. Diru-itzulketa bi hilabeteko epean egin beharko da, bestela ezingo dute hurrengo bi ikasturteetan bekarik eskatu.

El Ayuntamiento exigirá la devolución del 100% de la matrícula anticipada a quienes no hayan cumplido con el 75% de asistencia. El reintegro deberá realizarse en el plazo de dos meses, dado que, de lo contrario, no podrá solicitar beca en los dos cursos siguientes.

III. AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI TITULUA ESKURATZEKO IKASTAROAK ETA HEZITZAILEEN BERARIAZKO PRESTAKUNTZA EGITEKO

III. PARA LA REALIZACIÓN DE CURSOS PARA LA OBTENCIÓN DEL TÍTULO DE MONITOR/A Y DIRECTOR/A DE TIEMPO LIBRE Y FORMACIÓN ESPECÍFICA DE EDUCADORES/AS

11. artikulua.- Xedea

Alde batetik, aisialdiko begirale edo zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroa euskaraz egiten duten andoaindarrei diruz laguntzea, eta bestetik, Andoingo kultur, aisialdi edota kirol elkarteetako begirale eta entrenatzaileentzat jokalarien hizkuntza-aktibazioan eragiteko estrategiak lantzen duten ikastaroak egiteko dirulaguntza lerroa irekitzea, euskaraz jardun behar duten begiraleek prestakuntza berezitu jaso dezaten.

Artículo 11.- Objeto

Se trata, por un lado, de subvencionar a las y los andoaindarras que realicen en euskera cursos para la obtención del título de Monitor/a o Director/a de Tiempo Libre, y por otro, de abrir una línea de subvenciones para la realización de cursos que aborden estrategias de incidencia en la activación lingüística de las/los jugadoras/-es destinadas a los monitores/as y entrenadores/as de las asociaciones culturales, recreativas y/o deportivas de Andoain,



Andoaino Udala

con el fin de que los monitores/as que vayan a ejercer su actividad en euskera reciban formación especializada.

12. artikulua.- Onuradunak eta bete beharreko berariazko baldintzak

Dirulaguntza hauen onuradunak izango dira 2. artikuluko eta ondorengo baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluaren kasurako:
 - Andoainen erroldatuta egotea ikastaroa bukatzen den uanean.
 - Ikastaroa euskaraz egitea
 - Eusko Jaurlaritzak homologaturiko ikastaroa izatea.
 - Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea.
- Begirale eta entrenatzaileen kasurako:
 - Hizkuntza-aktibazioan eragiteko estrategiak lantzen dituen euskarazko prestakuntza-ikastaroa izatea.
 - Herriko kultur, aisialdi edota kirol elkarteren batean lanean aritzea formazioa bukatzen den uanean.

13. artikulua.- Eskabideak.

Eskatzaileek dirulaguntza eskaeraren inprimakia aurkeztu beharko dute, dagokion bezala beteta eta sinatuta, **dirulaguntzen deialdian ezarritako epe barruan**, eta honako datuak jasotzen dituen ikastegiak eginiko ziurtagiarekin batera:

- Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluaren kasuan: Ikastegiaren ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroa egin izana eta alderdi teorikoa gainditu izana ziurtatzen dituen, ordaindutako matrikularen zenbatekoa eta ikastaroaren homologazio eta hizkuntzari buruzko xehetasunak ziurtatzen dituen.
- Begirale eta entrenatzaileen kasurako:
 - Herriko elkarteetako begirale edo entrenatzaile dela egiaztatzen duen ziurtagiria.
 - Ikastegiaren ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroa egin izana ziurtatzen duena, ordaindutako matrikularen zenbatekoa eta ikastaroaren xehetasunak ziurtatzen dituen.
- Bi kasuetarako: Ikastaro beragatik beste erakunde pribatu edo publikoren batek dirulaguntzarik eman badio edo oraindik erantzunik ez ezagutu arren beste dirulaguntzarik eskatuta baldin badauka, eskabidea-ren inprimakian bertan azaldu beharko du zein erakunderi eskatu dion eta, dagoeneko erantzuna jaso badu, zein den jasoko duen diru-

Artículo 12.- Beneficiarios y requisitos específicos a cumplir.

Serán beneficiarios de estas subvenciones aquellos que cumplan los siguientes requisitos de los artículos 2 y siguientes:

- Para el título de Monitor/-a y Director/-a de Tiempo Libre:
 - Estar empadronado en Andoain a la finalización del curso.
 - Realización del curso en euskera
 - Ser un curso homologado por el Gobierno Vasco.
 - Superar la parte teórica del curso.
- Para monitores/as y entrenadores/as:
 - Que se trate de un curso de formación en euskera que elabore estrategias para incidir en la activación lingüística.
 - Estar trabajando en alguna asociación cultural, recreativa o deportiva del municipio en el momento de finalizar la formación.

Artículo 13.- Solicitudes

Los solicitantes deberán presentar el formulario de solicitud de subvención debidamente cumplimentado y firmado, dentro del plazo establecido en la convocatoria de subvenciones, junto con un certificado expedido por el centro docente en el que consten los siguientes datos:

- En el caso del título de Monitor/a de Tiempo Libre y Director/a: certificado del Centro en el que conste que la persona solicitante ha realizado el curso y superado la parte teórica, importe de la matrícula abonada y detalle de la homologación e idioma del curso.
- Para monitores/as y entrenadores/as:
 - Certificado que acredite su condición de monitor/a o entrenador/a de asociaciones locales.
 - Certificado del centro que acredite la realización del curso, importe de la matrícula abonada y detalle del curso.
- En ambos casos, si por el mismo curso hubiera recibido alguna otra subvención por parte de cualquier otra entidad pública o privada, o si, a falta de respuesta, hubiera solicitado alguna otra subvención, deberá hacer constar en el impreso de solicitud la entidad a la que ha solicitado la subvención y, en caso de haber obtenido respuesta



Andoaingo Udala

kopurua.

afirmativa, la cuantía de la misma.

14. artikulua.- Dirulaguntzaren ezaugarriak.

Dirulaguntza, gehienez ere, ikastaroaren matrikularen %40koa izango da, nahiz eta Udalak zehaztuko duen, urte bakoitzerako argitaratzen den deialdian, dirulaguntzen gehienezko kopurua ikasleko.

Artículo 14.- Características de la subvención.

La cuantía máxima de la subvención será del 40% de la matrícula del curso, si bien el Ayuntamiento determinará, en la convocatoria que se publique para cada año, la cuantía máxima de la subvención por alumno.

V. KANPO ETA BARRUKO HIZKUNTZA PAISAIA EUSKARAZ JARTZEKO

V. PARA LA IMPLEMENTACIÓN DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO EXTERIOR E INTERIOR EN EUSKERA

19. artikulua.- Xedea

Merkataritza, ostalaritza eta beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituzten jardundegietako hizkuntza paisaia, kanpokoa zein barrukoa, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzea.

Artículo 19.- Objeto

Implementar en euskera o en euskera y castellano el paisaje lingüístico tanto exterior como interior, de los establecimientos que ofrecen servicios de comercio, hostelería y otros.

20. artikulua. Bete beharreko berariazko baldintzak eta onuradunak.

- a) Enpresa edo merkataritza jardundegiak Andoaingo udalerrian kokatuta egon beharko du.
- b) Inbertsioa egiten den unetik dirulaguntza eskatzen den unera arte urtebeteko epea pasa ez izana.
- c) Dirulaguntza jaso ahal izateko elementuak euskaraz ongi idatzita izatea eta, hala balegokio, euskaraz eta gaztelaniaz.
- d) Izen berezi, toponimo, akronimo eta abizenak soilik adierazten dituzten elementuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.
- e) Euskara hutsean edota bietara eginda dauden euskarriengatik emango da dirulaguntza, baina, euskaraz eta gaztelaniaz, bietara alegia, egindakoen kasuan, euskara gutxienez gaztelaniaren neurri berean erabiltzea nahitaezkoa izango da dirulaguntza jasotzeko, beti ere euskarazko testuari lehentasuna eman bazaio.
- f) Kontuan hartuko da jendeak irakurtzeko moduan jarrita dauden kartel eta seinaleztapenak ere euskaraz edota bietan idatzita egotea.
- g) Diruz lagundutako euskarrietan azaltzen diren irudiak eta erabiltzen den hizkera ez-sexistak izango dira.

Artículo 20. Beneficiarios y requisitos específicos a cumplir.

- a) La empresa o jornada comercial deberá estar ubicada en el municipio de Andoaín.
- b) No haber transcurrido un año desde la fecha de realización de la inversión hasta el momento de la solicitud de la subvención.
- c) Tener bien redactados en euskera y, en su caso, en euskera y castellano los elementos que permitan obtener subvención.
- d) Los elementos que indiquen únicamente nombres propios, topónimos, acrónimos y apellidos no serán objeto de subvención.
- e) Se subvencionarán los soportes íntegramente en euskera o a ambas lenguas, pero en el caso de los soportes redactados en euskera y castellano, la utilización del euskera al menos al castellano será requisito indispensable para la obtención de la subvención, siempre y cuando se haya dado prioridad al texto en euskera.
- f) Se tendrá en cuenta que los carteles y señalizaciones colocados de forma legible para el público estén también redactados en euskera o en ambas lenguas.
- g) Tanto las imágenes como los textos que se recogen en los soportes subvencionados, tendrán carácter no-sexista.

21.- artikulua.- Diruz lagunduko diren gastuak

- a).- Jardundegiaren kanpoko errotulua.
 - Erakusleihoaren kristalean bertan jartzen diren errotulazioetan.
 - Toldoen errotulazioa

Artículo 21.- Gastos subvencionables

- a).- Rótulo exterior del establecimiento.
 - En las rotulaciones que se colocan en el mismo cristal del escaparate.
 - Rotulación de toldos



Andoaino Udala

- Bestelako euskarrietaoak.

b).- Jardundegiaren barruko hizkuntza paisaia:

- Eskaintzen diren produktuak/zerbitzuak erakusteko jartzen diren idatzizko euskarri finkoak.
- Seinalitikarekin zerikusia duten idatzizko euskarriak (komunak, jangela, sarrera/irteera, probagela...).
- Eskaintzen diren produktuak, zerbitzuak eta prezioak ikusteko bezeroak eskuragarri dituen idatzizko euskarriak.
- Erabilera bakarreko idatzizko euskarriak (mahai zapiak, plater azpikoak, ahozapiak, poltsak, tiketak, fakturak, albaranak...).

Dirulaguntza erabilitako materialari berari dagokion gastuaren gainean izango da, ez da kontuan izango elementua jardundegian jartzearen kostua. Era berean, erakusleioaren kristaleko estanzioei eta toldoen errotulazioei dagokienez, estanzio gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

22. artikulua.- Eskabideak

Eskaera-orriarekin batera honako hauek aurkeztu behar dira:

- Egindako gastuen jatorrizko fakturak.
- Idazkuna jarrita dagoela frogatzen duen argazkia; idazkun bat baino gehiago denean, guztiena aurkeztu behar da.

23. artikulua.- Dirulaguntzaren ezaugarriak

Euskarriak euskara hutsezkoak badira kostuaren %60koa izango da, urtero Udalak erabakitzen duen kopuruko mugapean.

Elebietan badira, beti ere euskarazko testuari lehentasuna eman bazaio, kostuaren %30, urtero Udalak erabakitzen duen kopuruko mugapean.

BEZagatik ordaindutako zenbatekoa diruz lagunduko da bakarrik eskatzaileak egiaztatzen badu ez duela zerga horren aitortpenik egin behar.

Enpresek 5 urtez behin bakarrik jaso ahalko dituzte azpi-atal hauetako materialagatik dirulaguntzarik:

- a).- Jardundegiaren kanpoko errotulua.
 - Erakusleioaren errotulazioa
 - Toldoen errotulazioa
 - Bestelako euskarrietaoak.

b).- Jardundegiaren barruko hizkuntza paisaia:

- Otros soportes.

b).- Paisaje lingüístico interior del establecimiento:

- Soportes fijos por escrito colocados para mostrar los productos/servicios ofertados.
- Soportes escritos relacionados con la señalítica (aseos, comedor, entrada/salida, sala de pruebas...).
- Soportes escritos a disposición del cliente para visualizar los productos, servicios y precios ofertados.
- Soportes escritos de un solo uso (mantelería, bajo plato, servilletas, bolsas, tickets, facturas, albaranes).

La subvención será sobre el gasto correspondiente al material utilizado, sin tener en cuenta el coste de la instalación del elemento en el establecimiento. Asimismo, en el caso de las estampaciones en el cristal del escaparate y rotulaciones de toldos, únicamente se tendrán en cuenta los gastos de estampación.

Artículo 22.- Solicitudes

A la solicitud se acompañará:

- Facturas originales de los gastos realizados.
- Fotografía probatoria de la colocación del asiento; cuando se trate de varios asientos, se acompañará la de todos.

Artículo 23.- Características de la subvención

En el caso de soportes íntegramente en euskera, será del 60% del coste, con la limitación que anualmente determine el Ayuntamiento.

En las dos lenguas oficiales, siempre que se haya dado prioridad al texto en euskera, el 30% del coste, con la limitación de la cantidad que anualmente decida el Ayuntamiento.

La cantidad abonada en concepto de IVA sólo será subvencionable si el solicitante acredita que no está obligado a realizar declaración por este impuesto.

Las empresas sólo podrán recibir subvenciones por el material de los siguientes subapartados una vez cada 5 años:

- a).- Rótulo exterior del establecimiento.
 - Rotulación del escaparate
 - Rotulación de toldos
 - Otros soportes.

b).- Paisaje lingüístico interior del establecimiento:



Andoaino Udala

- Eskaintzen diren produktuak/zerbitzuak erakusteko jartzen diren idatzizko euskarri finkoak.
- Seinalitikarekin zerikusia duten idatzizko euskarriak.

- Soportes fijos por escrito colocados para mostrar los productos/servicios ofertados.
- Soportes escritos relacionados con la señalética.

VI. WEBGUNEAK ETA PROGRAMA INFORMATIKOAK EUSKARAZ JARTZEKO

24. artikulua. Xedea

Andoaino enpresa, merkataritza eta ostalaritza jardundegiak egunerokoan beren lanerako edo beren bezeroei informazioa eskaintzeko erabiltzen dituzten webguneak eta programa informatikoak euskaraz izan dezaten diruz laguntzea.

25. artikulua. Bete beharreko berariazko baldintzak

- a) Enpresa edo merkataritza jardundegiak Andoaino udalerrian kokatuta egon beharko du.
- b) Dirulaguntza-gai diren webguneak eta programa informatikoak jartzeko edo berritzeko inbertsioa egiten den unetik dirulaguntza eskatzen den unera arte urtebeteko epea pasa ez izana
- c) Edukiak oso-osorik euskaraz izango dira gutxienik. Horrek ez du eragozten beste hizkuntzaren batean ere izatea.
- d) Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.
- e) Dirulaguntza eskatzaileak, bere aldetik, konpromisoa hartuko du webguneak hala izaten jarraituko duela hortik aurrera, webgunea hizkuntza bakar batean izateko aukera guztiak baztertuta, euskara hutsezko aukera izan ezik.
- f) Diruz lagundutako webguneak eta programa informatikoetan azaltzen diren irudiak eta erabiltzen den hizkera ez-sexistak izango dira.

26. artikulua.- Eskabidea

Eskaera-orriarekin batera honako hauek aurkeztu behar dira:

- Egindako gastuen jatorrizko fakturak.
- Egindako webguneek edota jarritako programa informatikoek eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen modua Udalaren esku jartzea (loturak, helbideak...).

27.-. artikulua.- Dirulaguntzaren ezaugarriak Webguneen kasuan:

- Euskara hutsezko webguneak, edo eleanitza izanda,

VI. PARA LA INSTALACIÓN DE PÁGINAS WEB Y PROGRAMAS INFORMÁTICOS EN EUSKERA

Artículo 24. Objeto

Subvencionar que empresas y establecimientos de comercio y hostelería de Andoain tengan en euskera los sitios web y programas informáticos que utilizan para su trabajo diario o para ofrecer información a sus clientes.

Artículo 25. Requisitos específicos

- a) La empresa o establecimiento comercial deberá estar situado en el municipio de Andoain.
- b) No haber transcurrido un año desde el momento de la inversión subvencionable en la implantación o renovación de páginas web y programas informáticos, hasta el momento de la solicitud de la subvención.
- c) Todos los contenidos tendrán que estar, al menos, en euskera. Esto no impide que también estén en otros idiomas.
- d) La calidad y corrección en el idioma son indispensables.
- e) La/el solicitante tomará el compromiso de que dicha página web continúe así de ahí en adelante, abandonando toda posibilidad de que sea exclusivamente en un solo idioma, a excepción del euskera.
- f) Tanto las imágenes como los textos que se recogen en las páginas web y en los programas informáticos subvencionados, tendrán carácter no-sexista.

Artículo 26. Solicitudes

Junto al impreso de solicitud, tendrán que presentar la siguiente documentación:

- Facturas originales de los gastos realizados.
- Poner a disposición del Ayuntamiento la forma en la que compruebe que las páginas web y/o programas informáticos puestos a disposición cumplen con los requisitos exigidos (enlaces, direcciones).

Artículo 27.- Características de la subvención En el caso de sitios web:

- Sitios web íntegramente en euskera, o de carácter



Andoaino Udala

euskarazkoari, gutxienez beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, eta lehen orrian euskarazkoa lehenetsita: kostuaren %50, urtero Udalak erabakitzen duen kopuruko mugapean.

- Eleanitza izanda, euskarazkoari, gutxienez beste hizkuntzetan eman zaion adinako tratamendua emanda, baina lehen orrian euskarazkoa lehenetsi gabe: kostuaren %30, urtero Udalak erabakitzen duen kopuruko mugapean.

Programa informatikoen kasuan:

Euskara hutsezkoa bada kostuaren %50ekoa izango da, eta eleanitza bada kostuaren %30, urtero Udalak erabakitzen dituen kopuruetakoa mugapean.

BEZagatik ordaindutako zenbatekoa diruz lagunduko da bakarrik eskatzaileak egiaztatzen badu ez duela zerga horren aitortzen egin behar.

Webguneengatik xedaturiko dirulaguntzak hamar urteko epealdian behin bakarrik jaso ahal izango dituzte enpresek. Programa informatikoetarako ez dago horrelako mugarik

plurilingüe, a la página web en euskera, con un tratamiento, al menos, igual que en las otras lenguas, priorizando en la primera página la página en euskera: el 50% del coste, con la limitación de la cantidad que anualmente decida el Ayuntamiento.

- Siendo plurilingüe, dando al euskera, al menos, el mismo tratamiento que se le ha dado en las demás lenguas, pero sin priorizar la versión en euskera en la primera página: 30% del coste, con la limitación que anualmente decida el Ayuntamiento.

En el caso de programas informáticos:

Si el euskera es puro será el 50% del coste y si es plurilingüe el 30%, con el límite de las cantidades que anualmente acuerde el Ayuntamiento.

La cantidad abonada en concepto de IVA sólo será subvencionable si el/la solicitante acredita no estar obligado/-a a realizar declaración por este impuesto.

Las empresas sólo podrán acceder a las subvenciones relativas a páginas Web una vez cada diez años. No existe tal límite para los programas informáticos

VII. UDALERRIZ GAINDIKO EREMUETAN EUSKARA SUSTATZEN DUTEN ERAKUNDEENTZAKO

28. artikulua. Xedea.

Andoaino Udalak udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabilen erakundeei euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzeko dirulaguntza hauek eskainiko dizkie.

29. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Udalak urtero zehaztuko du banatuko den dirulaguntzaren zenbatekoa. Onartutako eskaera bakoitzari ordenantza honetako **30 artikuluko** puntuazio sistemaren bidez lortutako puntuen baitako dirulaguntza emango zaio.

30. artikulua.- Onuradunak eta bete beharreko baldintzak

- Udalerriz gaindiko eremuetan euskara sustatzea.
- Euskararen normalizazioan eragiten duten esparruak lantzea.
- Eskabidea ekainaren 30 baino lehen aurkeztea.

31. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskaera gutuna edo txostena.

VII. A ENTIDADES QUE PROMUEVAN EL EUSKERA EN ÁMBITOS SUPRAMUNICIPALES

Artículo 28.- Objeto.

El Ayuntamiento de Andoain concederá subvenciones a entidades de ámbito supramunicipal que estén trabajando en la promoción del euskera para implementar medidas en los ámbitos que incidan en la normalización del euskera.

Artículo 29. -Cuantía de la subvención

El ayuntamiento fijará anualmente la cuantía de la subvención a conceder. A cada solicitud admitida se le otorgará la subvención en función de la puntuación obtenida por el sistema de puntuación del **artículo 30** de esta Ordenanza.

Artículo 30.- Beneficiarios y requisitos

- Promoción del euskera en ámbitos supramunicipales.
- Trabajar los ámbitos que inciden en la normalización del euskera.
- Presentar la solicitud antes del 30 de junio.

Artículo 31.- Documentación a presentar

- Carta de pedido o informe.



Andoaino Udala

- Zinpeko aitortpena. Bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, dirulaguntzaren zenbatekoak diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen EZ duela egiaztatzen duena.
- Declaración jurada. Que acredite que la subvención concedida NO supera, individualmente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, el coste de la actividad subvencionada.

32. artikulua.- Puntuazio erabidea

Urteko egitasmo guztiei emateko dagoen diru-kopuru guztia eta ebaluazioaren arabera erakundeek lortutako puntu guztien zatiketa egin eta eragiketa horrek puntu baten balore ekonomikoa emango du.

Puntu batetik ateratzen den balore ekonomikoa bider erakundeek lortzen dituzten puntuak zehaztuko dute eman beharreko dirulaguntzaren kopurua.

Baloraziorako adierazleen datuak EUSTATetik, eta beste erakunde publikoetatik lortuko dira. Dirulaguntza ematen den urtean argitaratuta dauden azken datuak erabiliko dira baloraziorako.

Baloraziorako adierazleak eta horien puntuazioa honako hauek dira:

- a).- Erakundearen eragin eremuko egoera soziolinguistikoa. Biztanleriaren artean dauden euskaldunen (euskaldunak + ia euskaldunak/2) ehunekoa:
- % 0-30,9: 100 puntu
 - % 31-40,9: 50 puntu
 - % 41-60,9: 20 puntu
 - % 61-70,9: 10 puntu
 - % 71-100: 5 puntu
- b).- Erakundearen eragin eremuko biztanle kopurua:
- 2.500.000 edo gehiago 80 puntu
 - 1.000.000tik 2.499.999ra bitarte 60 puntu
 - 500.000-999.999ra bitarte 40 puntu
 - 0-499.999ra bitarte 20 puntu
- c).- Dagokion eremu administratiboko hizkuntza legediaren garapena
- Ez dago legediarik: 100 puntu
 - Legedia partziala dago: 50 puntu
 - Legedia badago: 0 puntu
- d).- Proiektuaren memoria aurkeztu izana
- Aurkeztu du eta osatua da: 50 puntu
 - Aurkeztu du, baina eskasa da: 10 puntu
 - Ez du proiekturik aurkeztu : 0 puntu

Artículo 32.- Sistema de puntuación

La cantidad total destinada a cada uno de los proyectos anuales se dividirá entre la totalidad de los puntos obtenidos por las entidades en función de su evaluación y dará un valor económico a cada punto.

La cuantía de la subvención a conceder vendrá determinada por la multiplicación del total de los puntos obtenidos por la entidad por el valor económico de un punto.

Los datos de los indicadores de valoración se obtendrán del EUSTAT y de otros organismos públicos. Se valorarán los últimos datos en vigor publicados en el año de la concesión de la subvención.

Los indicadores de valoración y su puntuación son los siguientes:

- a).- Situación sociolingüística del ámbito de influencia de la entidad. Porcentaje de euskaldunes (euskaldunes + cuasi euskaldunes/2) entre la población:
- 0-30,9%: 100 puntos
 - 31% 40,9%: 50 puntos
 - 41-60,9%: 20 puntos
 - 61-70,9%: 10 puntos
 - 71 a 100% 5 puntos
- b).- Número de habitantes del ámbito de influencia de la entidad:
- 2.500.000 o más 80 puntos
 - Entre 1.000.000 y 2.499.999 60 puntos
 - Entre 500.000-999.999 40 puntos
 - De 0 a 499.999 20 puntos
- c).- Desarrollo de la legislación lingüística en el ámbito administrativo correspondiente
- No existe legislación 100 puntos
 - Legislación parcial: 50 puntos
 - Existe legislación: 0 puntos
- d).- Presentación de la memoria del proyecto
- Presentada y completada 50 puntos
 - La ha presentado, pero es insuficiente, 10 puntos



Andoaingo Udala

- No presenta proyecto: 0 puntos

VIII. BERTSO DIRULAGUNTZAK.

SAIOAK

ANTOLATZEKO

33. artikulua.- Xedea

Andoaingo Udalak herriko elkarteek edo herrian egoitzarik duten elkarteek antolatzen dituzten bertso saioak diruz lagunduko ditu.

34. artikulua.- Onuradunak eta bete beharreko berariazko baldintzak

Dirulaguntza hauen onuradunak izango dira 2. artikuluko eta ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten elkarteak:

- Andoaingoa izatea edota Andoainen egoitza bat izatea.
- Bertso saioa Andoainen egitea.
- Parte hartzen duten bertsolarien erdiak, gutxienez, emakumezkoak izatea.
- Ekitaldia irekia izatea, edonor joateko modukoa, nahiz sarrera ordaindu behar izan.

35. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak.

Dirulaguntza-eskaerak aurkezteko epea urtero argitaratzen den deialdian zehaztuko da eta honako agiriak aurkeztu beharko dira Udaleko egoitza elektronikoen bidez:

- Saioaren eduki eta ezaugarriak biltzen dituen txostena: arrazoia, data, lekua, parte-hartzaileak, zabalkunderako erabilitako euskarriak ...
- Saioa gauzatzeko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena edota likidazioa.
- Edozein kasutan, behin saioa gauzatuta, elkarteak bi hilabeteko epean aurkeztu beharko du diru-sarreraren eta gastuen likidazioa, izandako gastuen zurigarriekin batera.

36. artikulua.- Dirulaguntzaren ezaugarriak

Udalak diruz laguntzeko bakarrik hartuko du kontuan bertsolarien jardueraren gastua eta, gehienez ere, gastu hori estaltzeko adina dirulaguntza jasoko du elkarteak.

Dirulaguntza ordainduko da behin ekimena burututa eta dagozkion txostena, sarrera eta gastuen likidazioa eta izandako gastuen zurigarriak aurkeztuta Urteroko deialdian jasoko da dirulaguntza-ildo honetarako erabiliko den diru-kopurua, eta kopuru

VIII. AYUDAS PARA LA ORGANIZACIÓN DE SESIONES DE VERSOLARISMO

Artículo 33.- Objeto

El Ayuntamiento de Andoain concederá subvenciones a las asociaciones de Andoain o a las que tengan radicada alguna sede en la misma, para organizar sesiones y eventos de versolarismo.

Artículo 34.- Asociaciones beneficiarias y requisitos específicos.

Tendrán la consideración de beneficiarias de estas subvenciones las asociaciones en las que concurren, además de los requisitos recogidos en el artículo 2º, los siguientes:

- Que se trate de una asociación propia de Andoain o que tenga radicada alguna sede en el municipio.
- Que la sesión o evento de referencia se desarrolle en el municipio de Andoain.
- Que al menos la mitad de las personas versolaris participen en el evento sean mujeres.
- Que se trate de una actividad abierta a toda la ciudadanía, aunque cuando se haya de abonar el acceso a la misma.

Artículo 35. Documentación a aportar.

El plazo para la presentación de solicitudes se establecerá en la convocatoria que se publique anualmente, y la documentación se presentará a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Andoain:

- Informe descriptivo los contenidos y características del evento: motivo, fecha, lugar, participantes, medios utilizados para su difusión ...
- Previsión o, en su caso, liquidación de los ingresos y gastos del evento.
- Una vez llevado a cabo el evento, la asociación deberá presentar, en un plazo de dos meses, la liquidación de ingresos y gastos junto a sus correspondientes comprobantes.

Artículo 36. Características de las ayudas

El Ayuntamiento, a la hora de conceder estas ayudas, solo considerará subvencionable el gasto de la actividad correspondiente a las y los versolaris, y la ayuda será, como máximo, la cuantía que haya de cubrir dicho gasto.

La subvención se abonará una vez finalizado el evento y después de haberse presentado el correspondiente informe, junto con la liquidación de ingresos y gastos y sus comprobantes.



Andoaingo Udala

hori banatuko da aurkezten diren eskaeren artean, era proportzionalean.

En la convocatoria anual de ayudas se establecerá la cantidad de dinero destinado a esta línea de financiación, distribuyendo la misma proporcionalmente entre las solicitudes presentadas

IX. GIDABAIMENAREN AZTERKETA TEORIKOA EUSKARAZ EGIN ETA GAINDITU DUTEN HERRITARRENTZAKO DIRULAGUNTZAK

IX. SUBVENCIONES PARA QUIENES HAYAN REALIZADO Y APROBADO EL EXAMEN TEÓRICO PARA LA OBTENCIÓN DEL PERMISO DE CONDUCIR EN EUSKERA

37. artikulua.- Xedea

Andoaingo Udalak ziklomotorreko (AM), motozikletako (A1 eta A2) eta autoko (B) gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu duten andoaindarrei diruz lagunduko die.

Artículo 37.- Objeto

El Ayuntamiento de Andoain concederá subvenciones a los vecinos de la Villa que hayan realizado en euskera y aprobado el examen teórico para la obtención del permiso de conducir, ya sea de ciclomotor (AM), de motocicleta (A1 y A2) o de auto (B).

38. artikulua.- Onuradunak eta bete beharreko berariazko baldintzak

Dirulaguntza hauen onuradunak izango dira 2. artikuluko eta ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten herritarrak:

- Andoainen erroldatuta egotea.
- EAEko autoeskola batean matrikulatuta egotea.
- Gidabaimena eskuratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu izana, izan ziklomotorreko (AM), motozikletakoa (A1 eta A2) eta autokoa (B).

Artículo 38.- Personas beneficiarias y requisitos específicos.

Tendrán la consideración de beneficiarias de estas subvenciones las personas en las que concurren, además de los requisitos recogidos en el artículo 2º, estos otros:

- Estar empadronada en Andoain.
- Estar matriculada en alguna autoescuela de la CAPV.
- Haber realizado en euskera y aprobado el examen teórico para la obtención del permiso de conducir, ya sea de ciclomotor (AM), de motocicleta (A1 y A2) o de auto (B).

39. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak.

Dirulaguntza-eskaerak aurkezteko epea urtero argitaratzen den deialdian zehaztuko da eta honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Eskabide normalizatua, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Matrikula EAEko zein autoeskolatan egin den egiaztatzen duen agiria.
- Matrikula ordaindu izanaren agiria.
- Trafiko Zuzendaritza Orokorraren ziurtagiria, azterketa teorikoa euskaraz egin dela egiaztatzen duena.

Artículo 39. Documentación a aportar.

El plazo para la presentación de solicitudes se establecerá en la convocatoria que se publique anualmente, habiendo de aportar la siguiente documentación:

- Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.
- Documento que acredite que la persona solicitante se halla matriculada en una autoescuela de la CAPV.
- Documento que acredite el pago de la correspondiente matrícula.
- Certificado emitido por la Dirección General de Tráfico que acredite que el examen se ha realizado en euskera.

40. artikulua.- Dirulaguntzaren ezaugarriak

Matrikula gastua lagunduko da, baina ez tasak. Laguntza matrikula gastuaren % 50ekoa izango da, baina ezingo du gainditu urteroko deialdian eskatzaile bakoitzarentzat zehazten den gehieneko dirukopurua. Deialdi horretan ere zehaztuko da dirulaguntza-ildo

Artículo 40. Características de las ayudas.

Se subvencionará el coste de la matrícula, pero no las tasas.

La subvención será del 50% del gasto de la matrícula, pero sin que pueda superar la cantidad máxima que se determine por persona solicitante en la convocatoria anual.



Andoaino Udala

honetarako erabiliko den diru-kopurua.
Herritarrek dirulaguntza-lerro honetako dirulaguntza bat baino ezingo dute eskuratu urtean.

Asimismo, en dicha convocatoria anual de ayudas se establecerá el importe económico asignado a esta línea de financiación.

Se podrá acceder a una sola subvención de este tipo por persona y año.

Xedapen Gehigarri Bakarra.

Ordenantza honen garapenerako egoki eta beharrezko diren erabakiak hartuko dituzte, aldian-aldian, horretarako aginpidea duten udal-organoek. Hori horrela, bada, euskararen erabilera bultzatzeko xedez, berariazko egitasmoak jarriko ditu martxan Udalak. Egitasmo horietako bakoitzak arau eta baldintza bereziak izango ditu, nahiz eta beti ere Ordenantza honen ildotik ezarriak izan.

Disposición Adicional Única.

Los órganos municipales competentes adoptarán periódicamente los acuerdos necesarios y adecuados para el desarrollo de la presente Ordenanza. Por ello, con el fin de fomentar el uso del euskera, el Ayuntamiento pondrá en marcha programas específicos. Cada uno de estos proyectos se registrará por sus propias normas y condiciones, sin perjuicio de que se establezcan en línea con la presente Ordenanza.

Xedapen Indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, indargabetuta eta ondorioz gabe geldituko da 2015ko apirilaren 30ean Udalak onartu zuen Andoaino udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzen emakida araupetzen duen berariazko ordenantza, baita 2018an, 2021ean eta 2024an egindako moldaketak ere.

Disposición Derogatoria

A la entrada en vigor de la presente Ordenanza quedará derogada y sin efecto la Ordenanza específica reguladora de la concesión de subvenciones para actividades de promoción del euskera en el municipio de Andoain aprobada por el Ayuntamiento el 30 de abril de 2015, así como las modificaciones realizadas en 2018, 2021 y 2024.

Era berean indargabetuta eta ondorioz gabe geldituko dira bere mailako edo gutxiagoko edozein xedapen, araudi eta ordenantzak, baldin eta haren aurkakoak badira.

Asimismo, quedan derogadas y sin efecto cuantas disposiciones de igual o inferior rango, reglamentos y ordenanzas se opongan a la misma.

Xedapena Iragankorra

Ordenantza hau ez zaie ezargarri izango indarrean sartzen den unean jadanik abiarazita dauden dirulaguntzak emateko jardunbideei, horietan aurreko araudia hartu beharko baita kontuan.

Disposición Transitoria

La presente Ordenanza no será de aplicación a los procedimientos de concesión de subvenciones ya iniciados en el momento de su entrada en vigor, en los que se estará a la normativa anterior.

Azken Xedapena

Ordenantza hau sartuko da indarrean behin betiko testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera, eta indarrean egongo da Udalak hori aldatzea edo indargabetzea erabaki bitartean.

Disposición Final

La presente Ordenanza entrará en vigor a partir de la publicación del texto definitivo completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y mantendrá su vigencia hasta que el Ayuntamiento acuerde su modificación o derogación.